



ERANSKINA

DEBAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 12 HA, OSIO, AREARI BURUZKO ALDAKETAREN INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA EGITEKO ERREFERENTZIAKO AGIRIA

1. AURREKARIAK

Debako Arau Subsidiarioak 2007an behin betiko onartu ondoren, eta "Osio" esparruan hirigintza arloko hainbat ekintza eta espediente garatzen ziren aldi berean, jabe pribatu batek errekurtsua jarri zuen Debako Arau Subsidiarioak berrikusi eta 12 HA "Osio", eremuko lurzorua saillapena onartzeko erabakiaren aurka. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak errekurtsu horri erantzunez azaldu duen irizpenaren arabera, 12 HA eremuaren mugaketan *"homogeneoak ez diren eta saillapen ezberdinak izan beharko lituzketen lurzorua sartu dira"*. Eta ondorioztatu du, plangintza egin duenari dagokiola esparrua berriro antolatzea, esparru horretako lursailen izaera ezberdina kontuan hartuta.

Epai horren ondorioz, Udalak aldaketa honen bitartez hiri-lurzorua birsailkatzeko aukera ahalbidetu nahi du, baina betiere, LAZen arabera udalerrian gehienez aurreikus daitezkeen garapen mugak inolaz ere gainditu gabe, eta Deban gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioetan jasotako antolamendu egituratzailea ukitu gabe.

Hori horrela, aldaketaren aplikazio esparruan 3 lurzoru mota hauek sailkatzea planteatu dute:

- Lehendabizikoa, bizitegirako hiri-lurzoru finkatu gabea, 12 HA "Osio" izenekoa.
- Bigarrena, bizitegirako lurzoru urbanizagarria, 2 Sektorea "Osio" izenekoa.
- Hirugarrena, lurzoru urbanizaezina.

Hauek dira eremu horiek garatzeko ezarri diren hirigintza eta ingurumen arloko irizpideak:

- Eraikuntza dentsitate handiak.
- Osioko sarrera-irteera erabakiko duen antolamendua ahalbidetzea, N-634 errepidearekiko biribilgune bat eginda.
- Aipatutako biribilgunea eta ibaiaren Erriberako Pasealekua lotuko dituen goitiko pasabidea.
- Agirretxe, Eskolak eta Kiroldegiarekin lotzeko igogailua.
- Antolamenduaren barruan espazio libreak sortzea, bai aire zabalekoak eta bai estaliak.
- Maxpen zuzkidura publikoetarako eremuak gordetzea.
- Ingurumen baldintzak berreskuratzea eta Osio erreka 20 metroko luzeran bistan uztea.
- Malda handiko lursailetan ahalik eta esku-hartze gutxien egitea, jarduketak paisaian eragin dezakeen inpaktua minimizatzearen.
- Gaur egun urbanizatuak ez dauden lurzorua ahalik eta gutxien artifizializatzea, eta oraingo baso-masen gaineko eragina murriztea.

Esparrua antolatzeko 3 hautabide aztertu dira, baina oinarritzat Osio osoarentzako antolamendua hartuta, saillapenari begiratu gabe.

- *1. hautabidea*: 2007ko Arau Subsidiarioetan egindako aurreikuspeni jarraituz garatu den antolamendua da. Agirretxeko lotune-bide berriak hegoaldeko mendi-hegalean eustorma sendoak egin beharra ekarriko du, Osio errekan eraginez. Horrek, jakina, erreka berezko trazadura aldatzen du.



- 2. *hautabidea*: bidearen trazadura erreka iparraldera eramatea, erreka ukitu gabe, hegoaldeko mendi-hegalaren oraingo baldintza fisikoek bere horretan jarraituko duten moduan. Era berean, ekialdeko magalean ez litzateke eraikiko, eta eraikuntza Osion finkatu den familia bakarreko eraikinaren inguruan bilduko litzateke. Proposamen honek sistema lokalak eta espazio estaliak mendebalderantz eramatea dakar; eta ondorioz, espazio libreen artean nolabaiteko deskonexioa sortuko litzateke. Gainera, eraikitze aukera ere mugatu egingo luke, eta ondorioz, bideragarritasun ekonomikoak ere egokitu egin beharko lirateke.
- 3. *hautabidea*: 2. hautabidearen aldaera bat da. Kasu honetan, bidea erreka iparraldean kokatuta, errekan eragin gabe, eraikin berriak leku berean bilduko lirateke, familia bakarreko etxebizitza lekuz aldatuta. Hautabide honek zuzkidura lokalak eremu beraren inguruan kokatzen ditu berriro, nahiz eta hegoaldeko mendi-hegala zertxobait ukituko duen, espazio estalia kokatu ahal izateko. Gainera, Maxpe eraikina eta bere baratzea lurzoru urbanizaezin bihurtzen dira, eta horrek hiri-lurzoruaren azalera murriztu egiten du 2007ko aurreikuspenekin alderatuta. Azkenik, erreka beste 20 bat metrotan bistan uzteko aukera ematen du, eta hirigintza-kudeaketa bideratzearekin batera antolamenduaren oinarritzko irizpideak mantenduko dituen eraikuntza kokatzeko aukerak zabaldu.

Hautabide hori planteaturik, berorren ingurumen baldintzak aztertzeari ekin zaio, honako baldintza hauek kontuan hartuta:

- Orografia: maldak > % 30 eta > % 50.
- Geoteknia.
- Osio errekaerikiko eragina.
- Batasunaren intereseko habitaten gaineko eragina: artadiak eta txapartegiak.
- Arriskuan dauden fauna-espezieen banaketa-guneak.
- Urak hartzeko arriskua. Eraikinekiko eragina.
- Akuiferoak kutsatzeko arriskua.
- Zarataren eraginpean egotea. Lehendabiziko etxebizitza-blokerako distantzia.

Egindako azterketa horren ondorioz, 3. hautabidean aurreikusitako antolamendua aukeratu da.

Aldaketa honi buruzko izapideak 2013ko urriaren 8an abiarazi ziren, Udalak egun horretan bidalitako idatziarekin. Debako Udalak, idatzi horretan, kontsulta bat egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari, aldaketa honek ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura jarraitu behar duen ala ez galdetuz. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza honek, 2013ko urriaren 17an, prozedura hori jarraitzearen aldeko txostena egin zuen, eta xede horri begira erabaki zuen Debako Udalak hasierako agiria bidali behar zuela 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan aipatutako edukiarekin.

Hala, 2015eko urtarrilaren 9an, Debako Udalaren idatzi bat jaso genuen Zuzendaritza honetan, aldaketaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura abiarazteko eskatuz. Eta eskaera horri, hasierako agiria erantsi zion.

Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumeneko organoak erabakiko ditu ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenaren (aurrerantzean IIT) hedapena eta zehaztasun maila, ukitutako herri administrazioak eta pertsona interesatuak kontsultatu ondoren. Horretarako, erreferentziako agiri bat egingo du, eta horretan, Dekretu honen I. eranskinean ezarritako informazioa jasoko da gutxienez.

3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 44. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ekainaren 30eko 16/2012 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, plan bat onartzeko eskuduntza nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean, aldaketa zehatz honetan gertatzen den bezala, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia izango da erreferentziako agiria



egiteko organo eskuduna. Hori horrela, Zuzendaritza honek, 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako erreferentziako agiria egin du.

2. EGINDAKO KONTSULTAK

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honetan, Debako Udalak bidalitako erreferentziako agiria egiteko eskaera jaso ondoren, ukitutako administrazioei eta pertsona interesatuei kontsultak egiteko tramitea jarri genuen abian, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Pertsona interesatuen artean, Udalak proposatutakoa sartu dugu, 211/2012 Dekretuak 8. artikuluan xedatutakoa betez.

Era berean, ingurumen agiri hori eskura egon da Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren interneteko web orrian, www.gipuzkoaingurumena.net, herritar guztiek bidezkoztat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Hauek izan dira kontsultatu ditugun administrazio, erakunde eta pertsona interesatuak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko (aurrerantzean, GFA) Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Uraren Kontrol eta Kalitaterako Sekzioa.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Uren Kontsorzioa.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Debako Kultur Elkartea.
- Debanatura, ingurumen heziketarako elkarteak.
- Mutriko Natur Zaleak.
- Donejakue bideetako lagunen elkarteak.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- DEBEGESA.
- DEBEMEN.



- Alonso senideak. Juan Jose Alonso Verastegui jn.
- Begoña Gorrotxategi Agirre and.
- Miren Itziar Arrizabalaga Oñederra and.
- Angel Aires Rodriguez jn.
- Leire Echamendi Guisasola and.
- Miren Arantza Arostegi Korostola and.
- Francisco Ostolaza Esnaola jn.
- Manuel Rodriguez Menendez jn.
- Montserrat Berasaluce Markiegi and.
- Elene Lete Basauri and.
- Matilde Aperribay Zubillaga and.
- Itziar Lecea Salegi and.
- Inmaculada Boneta Piedra and.
- Miren Itziar Arostegi Izaga and.
- Aurkene Landa Lizarzaburu and.
- Itziar Aperribay Alberdi and.
- Jon Osa Loiola jn.
- Benigno Gonzalez Jaramillo jn.
- Manuel Iciar Gorritiberea jn.
- Aintzane Astigarraga Egaña and.
- Roberto Cendoya Fernandez and.
- Eider Lete Akaregi and.
- Jose Francisco Zubicaray Zubicaray jn.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, hauek izan dira erantzuna bidali dutenak: IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, eta Inmaculada Boneta Piedra andrea. Informe horien kopiak Ebazpen honi atxiki zaizkio eranskin gisa.

IHOBE sozietateak bere txostenean adierazi digunez, aldaketa zehatzaren eraginpeko eremuan lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituen edo izan dituen partzela bat identifikatu dira; hain zuzen ere *lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan –165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa–* edo hori eguneratzeko zirriborroan jasotako lursaila. Agiriari ukitutako partzelaren fitxa erantsi zaio. Arestian aipatutakoa aintzat harturik, *lurzorua ez kutsatzeko 1/2005 Legearen 17. artikuluan* jasotako egoeraren bat gertatuko balitz, lurzoruaren Kalitateari buruzko Adierazpena tramitatu beharko litzateke derrigorrez. Txostenean diotenez, halaber, lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak egitea, hala nola berreskuratze neurriak diseinatzea eta gauzatzea, erakunde egiaztatuen ardura izango da, *lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratze erakundeak egiaztatze sistemak ezartzen dituen 199/2006 Dekretuak, urriaren 10ekoak*, xedatutakoaren arabera.

Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak jakinarazi digunez, plana gauzatzeak osasun publikoan ez du eragingo aintzat hartu beharreko inpaktu nabarmenik, ez behintzat ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egiteko garaian, edo ebaluazioa egiteko prozesuan bertan funtsezko alderdiak aintzat hartu beharra ekarriko duenik. Era berean, honakoa gaineratu du: espaloien eta oinezkoentzako gainerako eremuen trazadurak jende ororentzako erabilgarriak izan behar dute; aldaketaren ondorioz sortzen diren berdeguneak ikuspen zabalekoak eta erraz eta seguru mugitzeko moduko lekuak izan behar dute; eta azkenik, oztopo fisikorik gabeko eta egokitze moduko etxebizitza mota diseinatuko da.



URA agentziak uren jabari publikoaren babesari buruz adierazi duenez, eman zaion informazioaren arabera planteatutako hautabideetan 3.a litzateke egokiena. Hala ere, kontuan hartuta Osio errearen bukaerako zatia zuzendu eta urbanizatu egingo dela, erabilera publikoko zorpen eremuan ez da burutuko erliebea funtsean itxuraldatu edo aldatu dezakeen ezer. Nolanahi ere, burutu nahi den esku-hartzeak uren jabari publikoan edota hauen zorpen edo kontrolerako eremuetan eragingo badu, alde zuzen bidezko administrazioaren baimena eskuratu beharko da. Uholde arriskuari dagokionez, txostenaren arabera, eraikinen, bidearen eta biribilgunearen zati bat urak har dezakeen eremuan geratuko dira 3 hautabideetan. Horrela bada, kontuan hartu beharko dira Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoaren araudian jasotako baldintzak; batez ere, 53. eta 54. artikuluetan baimendutako erabilera eta jardueri buruz, eta ezarritako gehieneko mugei dagokionez. Azkenik, ur hornidurari eta saneamenduari dagokionez, Gipuzkoako Uren Kontsultazioak egindako adostasunezko txostena aurkeztu beharko da, aldaketaren izapideak egiten diren bitartean. Txosten horretan egiaztatuko da eskari berriei erantzuteko behar besteko ahalmena badutela oraingo sistemek; eta hala ez bada, udalean badaudela ildo horretan sor daitezkeen arazoei irtenbidea emateko aurreikuspenak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak aldaketaren aplikazio esparruan dauden Kultura Ondareko elementu historiko-arkeologikoen eta arkitektonikoen zerrenda bidali du. Ondare historiko-arkitektonikoari dagokionez, txostenaren arabera aztertu egin beharko lirateke ondare horretan eragin daitezkeen inpaktuak; eta era berean, bidezko neurri babesgarri edo zuzentzaileak aurreikusi beharko lirateke, elementu horiek kalterik jasan ez dezaten, edota ingurunearen ezaugarriak itxuraldatuko duen jarduerarik burutu ez dadin. Balio arkeologikoa izan lezaketen guneei dagokionez, berriz, baldin eta aldaketak eragindako jarduketek eremu horiek ukituko badituzte, azterlan arkeologiko bat egin beharko da; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historikoko zerbitzuak, azterlan horretan oinarrituta, proiektu arkeologikoa egin behar den ala ez erabakiko du.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak bere txostenean dioenez, aldaketaren aplikazio esparrua Hezeguneen LAPean eta Itsasbazterren LAPean antolatutako eremu bat bada ere, ez dirudi proposatutako aldaketa honek ukitutako eremuen araudian eragingo duenik. Hala eta guztiz ere, artadi bezala kartografiatua dagoen zona batek ezkututzen du Osio eremua. Artadi hori Batasunaren intereseko habitata da, 9340 *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* hain zuzen. Horregatik, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak honakoa eskatzen du:

- Alde batetik, zuhaitzi osora zabal daitezkeen inpaktuak ekiditeko prebentziozko neurriak hartzea, behar-beharrezko lur-erazketak bakarrik eginda eta esku-hartze eremuak baliza egokien bitartez mugatuta.
- Beste aldetik, neurri konpentsagarriak hartzea, 12 HA, Osio, garatzeak ukitutako eremuaren azalera halako bi behintzat landareztatuta. Hori, ahal dela behintzat, aipatutako HA eremutik kanpo kokatuko da, nahiz eta zati bat esparruan bertan, espazio libreen eremuan gauzatzeko aukera azter daitekeen. Landaketa horretan zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak erabiliko dira, kantabriar artearen familiakoak hain zuzen; gutxienez bi urteko bermea izango dute, eta dagokien kostua eremuaren egikaritze proiektuko sail gisa jasoko da. Azkenik, konpentsazio hori non gauzatu den definituko da 12 HA, Osio, eremuaren hirigintza fitxan.

Inmaculada Boneta Piedra andreak alegazioak aurkeztu ditu Udalak bidalitako hasierako agiriaren aurka. Hauek dira alegazio horietan jasotako alderdi aipagarrienak:

- *Funtsezko gabeziak*. Ez dira aintzat hartu, “12 HEA, Osio, eremuan Plan Orokorra Formulatzeko espedientearen irizpideak eta helburuak” izeneko dokumentua dela-eta, Udalak 2010ean martxan jarri zuen herritarren parte-hartzearen ondorioz alegaziorik honen berak egindako alegazio eta iradokizunak. Ez dira aipatzen, halaber, kutsadura



akustikoari eta trafikoaren gorakadak ekar ditzakeen arazoei aurre egiteko irtenbideak; ezta garapen berriek oro har sortuko dituzten mugikortasun premientzako konponbideak ere.

- *Hautabideen azterketa:* aurkeztutako hautabideak aztertu eta honako biak alderatu ditu: 3. hautabidea, hasierako agiriak hobesten duena, eta 1. hautabidea, harentzat hobe dena. Alegaziogilearen iritziz, 3. hautabidea ez da bidezkoa; izan ere, merkeago izan daitekeen arren, erabat kaltegarria da edozein ikuspuntutik begiratuta: ingurumen iraunkortasuna, mugikortasuna, irisgarritasuna, hirigintza alderdiak, eta etorkizuneko garapena.

Erreferentziako agiri hau egin ondoren beste erantzunen bat jasotzen badugu, Udalari bidaliko diogu ahal bezain laster, erantzun hori aintzat har dezan bai aldaketa idazterakoan, eta bai iraunkortasun txostena egiterakoan.

3. INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA APLIKATU BEHARREKO IRAUNKORTASUN PRINTZPIOAK. ERREFERENTZIAKO AGIRIAN ERABILI DIREN ARAU ETA ERREGELAMENDU ITURRIAK.

A) Aldaketa idazterakoan aintzat hartuko dira honako dokumentu eta arau hauetan jasotako iraunkortasun irizpide eta printzipioak:

- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- Euskadiren Garapen Iraunkorrerako Estrategia 2020
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko IV. Esparru Programa (2020).
- Hiriaren eta Herriaren Iraunkortasunerako espainiar estrategia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, 2., 5., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikulua.
- Lur Legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. eta 10. artikulua.
- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.
- Ekonomia Iraunkorrari buruzko 2/2011 Legea, martxoaren 4koa.
- Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 2. artikulua.
- 1998ko uztailaren 28ko 22/1998 Kosta Legearen 2. artikulua.
- Uraren 2000/30/EE Esparru Zuzentarauaren 1. artikulua.
- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 3. artikulua.
- Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikulua.
- Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea.

Era berean, dagozkion alderdietan, aldaketa honek lagundu egin beharko du Debabarrenako 2011-2015 Jarduketa Planean proposatutako ildo estrategikoak betetzen.



B) Aldaketa idazterakoan, gutxienez ingurumen arloko helburu eta irizpide estrategiko hauek hartu beharko dira kontuan¹:

- Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta leheneratzea, Uraren Esparru Zuzentaruaren helburuak lortzen saiatuta.
- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gaitetik; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea aldaketa idazterakoan.
- Paisaia faktorea plangintzan txertatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatuz. Horrela, minimizatu egingo da bizitegirako hirigintza garapen hauetarako proposatu diren lur-erazketek paisaian eragin lezaketan inpaktua.
- Uholde arriskuak ahalik eta gehien prebenitzea edo murriztea, urak har ditzakeen lekuetan ez eraikitzen saiatuz, edota beste eremu batzuetan arrisku hori areagotu lezaketan jarduerak saihestuz. Hori horrela, aintzat hartuko dira EAEko ibai eta erreken LPSaren lehen aldaketak E2 atalean (Uholdeen aurka babesteko araudi espezifikoak) eta E4 atalean (Urbanizatu beharreko eremu berrietako drainatzeari buruzko araudi espezifikoak) exijitutako baldintzak; baita Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duen 400/2013 Errege Dekretuak, ekainaren 7koak, xedatutakoak ere.
- Kutsatuak egon litezkeen lurzorua lehengoratzeko eta balioesteko irtenbideak bultzatzea eta ahalbidetzea.
- Espazio publikoa lehenestea hiri garapenak antolatzeko elementu gisa.
- Hiri garapenak antolatzerakoan, honako helburu hauek bermatzea:
 - Biodibertsitateko elementu bereziak ez kaltetzea (landaretza autoktonoa, batasunaren intereseko habitatak, ibai eta errekek, eta abar).
 - Irisgarritasun ona, bai garraio publikoarentzako eta bai kotxe pribatuaz bestelako garraio bideentzako, bizikleta esate baterako.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoaren 213/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, kalitate akustikoari buruz ezarritako helburuak betetzea.
 - Natur arriskuekiko mendekotasuna minimizatzea, eta eremu horien ingurumen kalitatea bermatzea.
 - Ur hornidurako sarea eta saneamendu sarea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuko den moduan erabiltzeko aukera izatea.
 - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
 - Kultura ondarea zaintzea eta balioestea.
 - Aldaketak hartzen duen esparruko eta bere inguruko eremu publiko zein pribatuak jende ororentzat eskuragarri egotea.

¹ Gainera, honako dokumentu hauetan jasotako jarraibideak beteko dira: "Hiri plangintzan aplikatu beharreko iraukortasun irizpideak. 2003" eta "Hiri Plangintza Iraunkortasun Irizpideekin idazteko eskuliburua. 2005 (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saila).



- C) Hauek izan dira, zehatz-mehatz ez bada ere, honako erreferentziako agiri hau egiterakoan aintzat hartu ditugun, eta oro har onartuak dauden, arau eta erregelamendu iturriak:

Europakoa

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- Uraren 2000/60/EE Esparru Zuzentaraua.

Estatukoa

- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzkoa.
- 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Lur Legearen testu bateratua onartzen duena.
- 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, hiri birgaitzeari, eraberritzeari eta berritzeari buruzkoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren zaintzari buruz garrantzizkoa den estatu mailako gainerako araudia.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta soinu emisioei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen testu bateratua onartzen duena, eta berau garatzeko erregelamenduak; eta 903/2010 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoa.
- 400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeeii buruzkoa, eta 2/2013 Legea, maiatzaren 29koa, itsasbazterren babes eta erabilera iraunkorrari buruzkoa, eta Kostaldeeii buruzko 22/1988 Legea aldatzekoa.
- 876/2014 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, Kostaldeen Erregelamendua onartzen duena.

Autonomia Erkidegokoa

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Ingurumena Babesteko lege orokorra.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urei buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
- 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa, eta 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa lezaketen jarduerak edo instalazioak hartzen dituzten edo hartu izan dituzten lurzoruen inbentarioa egitekoa.
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko Legearen testu bateratua onartzen duena, eta naturaren zaintzari buruz erkidegoan indarrean dauden gainerako araudiak.



- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa, eta 317/2002 Dekretua, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia kultur ondasun gisa izendatzen duena, monumentu multzoaren kategoriarekin.
- Ingurumen, Lurralde Planifikazio, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak 2011ko martxoaren 18an emandako Agindua, Euskal Kostaldeko Geoparkearen nazioarteko izendapena, eta hori Europako Geoparkeen Sarean eta Munduko Geoparkeen Sarean (Unesco-k lagunduta) sartu izana argitara ematekoa.

4.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. PLANAREN APLIKAZIO ESPARRUAN DAUDEN INGURUMEN ARLOKO BALIABIDEAK ETA INTERES BEREZIKO EREMUAK, ETA INGURUMEN ARAZOAK.

Ebaluazioaren xede den esparru geografikoak bat etorri behar du, oro har, aldaketak ukituko dituen hirigintza unitateekin; hala ere, azalera hori zabaldu egin beharko da, beren ezaugarriengatik eremu geografiko handiagoetan eragin lezaketen ingurumen alderdi eta ondorioei dagokienez –esate baterako, eremu horretako hidrogeologiaren (Deba ibaia eta Osio erreka) gaineko eraginek, aldaketaren eraginpeko hirigintza unitateaz kanpoko uren jabari publikoan eta itsas-lehorreko jabarian eragin lezaketeenean–.

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honetan jasotako informazio bibliografiko eta kartografikoa begiratu ondoren, eta beste administrazioetatik jasotako erantzunak aintzat hartuta, segidan aipatuko ditugun baliabide hauskor edota baliotsuak identifikatu ditugu planaren aplikazio esparruan. Beraz, baliabide horiei aparteko arreta ipini beharko zaie aldaketa idazterakoan eta dagokion iraunkortasun txostena egiterakoan. Identifikatutako elementu horietako bakoitzaren babes helburua zehaztu dugu. Ingurumenaren alorrean interes berezia duten elementuen zerrenda hau orientagarria da; beraz, zerrenda hau ingurumen iraunkortasunaren txostenean osatu egin beharko da, udal barrutiaren ingurumen inbentario zorrotza eginez.

- a) **Batasunaren intereseko habitatak:** aldaketaren eraginpeko eremuetan, batasunaren intereseko habitat hauek daude: *Larre mesofiloak Brachypodium pinnatum eta orkidea ugarirekin (6210*) eta Quercus Ilex eta Quercus rotundifolia basoak (9340)*. Habitat batean zein bestean eragingo du proposatu diren hiru hautabide horietako edozeinek. Larre mesofiloen kasuan, iraunkortasun txostenean jaso beharreko inbentarioan zehaztu egin beharko da aldaketaren aplikazio esparruan orkideak badauden ala ez, eta ondorioz, arreta bereziaz zaindu beharreko lehentasunezko habitatik badagoen ala ez. 9340 habitatari dagokionez, bai hasierako agirian eta bai Udalak kontsultei buruz aurkeztutako agirian adierazten denez, berez sortutako hostozabalen baso horiek nahiko narriatuak daude eremu honetan. Hala eta guztiz ere, formazio horiek ahalik eta gutxien ukituko dira, esku-hartze eremuak baliza egokien bitartez mugatuta, lur-erazketak minimizatuta, edota hirigintza unitateetako espazio libreetan sartuta. Era berean, har daitezkeen neurri konpentsagarriak aztertuko dira, aurrez egindako kontsultei erantzunez Natura Ingurune eta Ingurumen Planifikazioko Zuzendaritzak ezarritako ildoetara jarraituz.
- b) **Euskal Kostaldeko geoparkea.** Aldaketa hau Parke horren muga barruan dago; beraz, aldaketa garatzean arreta berezia jarri beharko da Parkeari izendapen hori ahalbidetu dioten balioak ez ukitzeko; hau da, Ingurumen, Lurralde Planifikazio, Nekazaritza eta



Arrantzako sailburuak 2011ko martxoaren 18an emandako Aginduan aipatzen diren balioak ez kaltetzeko, alegia.

- c) **Itsas eta lehorreko jabari publikoa eta horren babes eta pasabide zorpeneko eremuak.** Esparrurako sarbideak –planteatu den biribilgunea, batez ere– itsas eta lehorreko jabari publikoaren barruan dago; beraz, eremu hori babestearren, indarrean dagoen legerian aurreikusitako baimenak eskuratu beharko dira –22/1988 Legea, Kostaldeei buruzkoa; 2/2013 Legea, itsasbazterraren babes eta erabilera iraunkorrari buruzkoa, Kostaldeei buruzko 22/1988 Legea aldatzen duena; eta lege hori garatzeko erregelamendua (876/2014 Dekretua)–.
- d) **Ur Legearen testu bateratuak eta berau garatzeko erregelamenduak araututako Uren Jabari Publikoa, beronen zorpeneko eremua eta kontrolgunea.** Aldaketaren esparrutik Osio erreka iragaiten da. IITan baloratu egin beharko da aldaketan proposatutako jarduketan garapenak erreka honi lotutako uren jabari publikoan nola eragingo duen; ez bakarrik zuzeneko ondorioak, baita zeharka eragin ditzakeenak ere; esate baterako, obren fasean eta ustiapen fasean –halakorik izanez gero– uren isurketak sor ditzakeen zehar ondorioak. Bestetik, zehazki hasierako agirian planteatu diren hautabideak aztertuta esan behar dugu, 3. hautabideak –agidanez aukeratu nahi denak– erreka 20 metro inguruko zati gehigarri bat bistan uzteko aukera ematen duela, eta hori balioestekoa dela, baina era berean, erreka azken zatia zuzendu eta urbanizatu egingo dela. Errekak jasan dezakeen inpaktuaz ari garela, azkenean erabakitzen den irtenbideak zaindu eta hobetu egin beharko ditu erreka horren ezaugarriak. Bereziki, egindako kontsultei erantzunez URA agentziak ezarritako irizpideen arabera, erabilera publikoko zorpen eremuan ez da burutuko erliebea funtsean itxuraldatu edo aldatu dezakeen ezer, ezta betelan edo urbanizazio lanik ere. Aldaketaren planoetan erreka estaliaren planoak jaso egin beharko dira; eta zati estalian ere bidezko distantziak errespetatuko dira.
- e) **Natur arriskuak (uholde arriskua, higagarritasuna eta egonkortasuna).** Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen dekretuak, hau da, premia neurri buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.b) artikuluan ezarritakoa betez, aldaketaren antolamendu esparruko natur arriskuei buruzko mapa erantsi behar zaio IITari. Uholde arriskuei dagokienez, hiru hautabideetan uholde arriskuko eremuan daude bai erreka eskuinaldean zein ezker aldean proposatutako eraikinak, bai bidearen trazadura, eta bai aurreikusitako biribilgunea. Horrela bada, aldaketaren aplikazio esparruan aintzat hartu beharko da 400/2013 Errege Dekretuak, ekainaren 7koak, 7. kapituluaren ezarritakoa, dekretu horrek onartzen baitu Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoa. Araudi horren arabera, landa-lurraren oinarriko egoeran dauden lursailen kasuan, 100 urteko edo gutxiagoko erreperikaldiko ur kolpeek har ditzaketen eremuez kanpo ezarri beharko dira uholdeei aurre egiteko babes neurriak.
- f) **Kutsatuak egon daitezkeen lurzorua:** aurretiazko kontsultari erantzunez IHOBE sozietateak bere txostenean jakitera eman duenez, aldaketaren eraginpeko esparruan badago partzela bat, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan –165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoak– sartua dagoena. Beraz, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legeak xedatutakoari jarraituz, lege horren 17. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatuko balitz –besteak beste, *kutsagarria izan litekeen jarduera edo instalazio bat duen edo jasan izan duen lurzorua kalifikazioa aldatuko balitz*– lurzorua kalitateari buruzko Adierazpena tramitatu beharko litzateke derrigorrez. Horrela bada, inbentariatuak kokaleku batean edozein esku-hartzeri ekin aurretik, lurzorua kalitatea ikertu beharko da nahitaez. Zeregin horretan egiaztatu beharko da lurzorua kutsadurarekin zerikusia izan lezakeen arriskurik ez dagoela, ez langileentzako eta ez lursailaren erabilera berria garatuko dutenentzako; eta utzitako hondakinak, eraikuntzak eta hondeatu beharreko lurrak behar bezala kudeatuko direla,



hondakinen arloan indarrean dagoen legeriarekin bat. Era berean, lur mugimenduak egiteko garaian lurzorua kutsatzeko arriskua antzemango balitz, berorren berri eman beharko zaio Ingurumeneko Sailburuordetzari. Azkenik, kasuan kasuko eremu bakoitzaren hirigintza fitxan, kutsatuak egon daitezkeen lurzoru horien berri eman beharko da, egoera horrek dakartzan legezko betebeharrak adieraziz.

- g) **Kutsadura akustikoa:** Gai honen inguruan egindako mapa estrategikorik ez badago ere, ezin da baztertu Euskotren-en lineak eta N-634 errepideak aldaketa honen esparruko soinu kalitatean eragin kaltegarria izatea. Horregatik, kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoa betez, bidezko hirigintza eta ingurumen arloko izapideak egiterakoan, Inpaktu Akustikoari buruzko Azterlana aurkeztu beharko da, kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 37., 38., 39. eta 40. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Inpaktu Akustikoari buruzko Azterlan horretan, halaber, Euskotren-en trenbideak eragindako bibrazio mailak ebaluatu beharko dira, 213/2012 Dekretuak 42. artikuluan xedatu bezala. Kontuan hartuta eremu hau ez dela zuzenean garatzekoa, azterketa hori atarikoa izan daiteke, gerora eremu horretarako ezarriko diren garapen planetan sakontzeko utzita. Baina azterketa horrek, nolana ere, 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate helburuak betetzea ahalbidetuko duten garapen hautabideak aukeratzeko bidea eman behar du.
- h) **Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak.** N-634 errepidea urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuak babestutako Donejakue bidearen barruan dago; eta dekretu horrek, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia kultur ondasun gisa izendatu zuen, monumentu multzoaren kategoriarekin. Beraz, eremu horretako jarduketari aipatutako dekretuak 14. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio. Monumentu multzo horren barruan babestuak daude, halaber: *Sasiola Dorrea*, babes bereziko elementu gisa, eta Maxpeko behealdea, oinarrizko babes dagokion elementu gisa. Horrela bada, bi elementu horiek bete egin beharko dute aipatutako dekretuaren III. eranskinean jasotako babes araubidea, eta Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean kultur ondasun izendatutako elementuentzako ezarritako araudia. Ingurumenaren iraunkortasun txostenean, eraikin horiek jasan ditzaketen inpaktuak aztertu beharko dira, eta neurri babesgarri edo zuzentzaileak aurreikusi, elementu horiek edo beren ingurunearen ezaugarriek ondorio kaltegarriak jasan ez dezaten.

Hiru hautabideek, bestetik, udal mailan babesteko proposatua dagoen *Vascoalemana* eraikin industrialean eragingo dutela dirudi. Iraunkortasun txostenean baloratu egin beharko dira eraikin horretan gerta litezkeen inpaktuak, eta bidezko neurri babesgarri edo zuzentzaileak aurreikusi. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, egindako kontsultari erantzunez, ondorio kritikoak saihestea eta eraikinaren balioak berreskuratzeko jarduketak bultzatzea gomendatzen du.

Azkenik, balio arkeologikoa izan lezakeen gune gisa, *Sasiola Dorrea* aipatu dute. Dorre hori uki dezakeen jarduketaren bat egin nahi izanez gero, hortaz, bidezko azterlan arkeologikoa aurkeztu beharko da.

- i) **Paisaia.** Esparru honetako baldintzatzaile topografikoak ikusita (alboetara malda biziak dituen ibarra → %30-, desnibel handiak ekartzen dituztenak), planteatutako garapenak lur mugimendu handiak eta lur-erazketa inportanteak (altuera, malda, ...) egin beharra ekarriko du, eta horrek guztiak, eremua paisaian behar bezala txertatzea eragotziko du. Horrela bada, aldaketa honetan azkenean erabakitzen den hirigintza antolamenduko proposamenean aintzat hartu beharreko faktore nagusiak honako hauek izango dira: paisaia eta jarduketaren ondorioz gertatuko diren aldaketa topografikoak paisaian txertatzeko neurriak.



5.- ETORKIZUNEAN JARDUERAK EZARTZEKO PROBLEMATIKOAK EDO ONARTEZINAK IZAN DAITEZKEEN ESPARRUEN IDENTIFIKAZIOA.

Gauzatu nahi diren proposamenei buruz hasierako agirian emandako informazioaren argitan, eta alde zuzeneko kontsultei emandako erantzunak kontuan hartuta, hala nola indarrean dagoen lurralde antolaketako legeria eta planifikazioa aintzat hartuta, uren jabari publikoan eta itsas eta lehorrekoan bizitegiak eta bideak ezartzeko proposatu den eremua uholde arazoan mende dago; horregatik, garapen horiek diseinatzerakoan aintzat hartu beharko dira Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoan jasotako baldintzak. Eta horrek, behin betiko proposamenean aldaketa oso handiak egin beharra ekar lezake, orain aurkeztu diren hautabideekin alderatuta.

Era berean, eremu hau leku askotatik ikusten denez, eta lursailaren maldak aintzat hartuta, arestian aipatutako aldaketa horrek inpaktu handia eragin dezake paisaian; beraz, arazo hori ahal den neurrian arindu egin beharko da, diseinu egoki baten bidez.

6.- INGURUMENAREN IRAUNKORTASUN TXOSTENAREN EDUKIA ETA HELMENA.

Ingurumen iraunkortasunaren txostenak –IIT aurrerantzean– planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, II. eranskinean ezarritako edukia izango du gutxienez, ebaluatu beharreko planaren helmena eta xehetasun maila aintzat hartuta.

Gutxieneko eduki horren barruan, erreferentziako agiri hau egitearen ondorioz, edota gerora jendaurrean ikusgai jartzean, administrazioek, erakundeek eta pertsona interesatuek arazo gisa antzematen dituzten ingurumen gaiak, IIT egiterakoan aintzat hartu beharreko alderdi nabarmentzat joko dira; beraz, txostenean gai horiek sakontasun osoz aztertuko dira, eta gainera, planean behar den moduan txertatzea proposatuko da.

6.1.- Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programekin izan ditzakeen elkarreraginak

IIT txostenean, aldaketaren edukia jasoko da laburtuta, eta laburpen horretan adieraziko dira aldaketaren helburu den esparrua, aurrekariak, helburuak, berorri lotuko zaizkion jarduerak, denbora-plangintza eta plana garatzeko erabil daitezkeen tresnak.

Era berean, aldaketa honek hiri antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen elkarreraginak, hala nola aldaketarekin zerikusia izan lezaketen lurralde plan eta arloko planekin izango dituenak aztertuko dira. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Lurraldea Antolatzeko Zuzentarauak (LAZ).
- Eibarko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala (Debabarrena).
- Euskal Autonomia Erkidegoko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana eta beronen aldaketa.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2009-2015).
- EAEko nekazaritza eta basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana. (177/2014 Dekretua, behin betiko onartzekoa).
- EAEko Itsasbazterra Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.



- EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.

Aldaketaren helburuek eta jarduerak, esparru horretan eragiten duten planen eta programen helburu eta xedapenekin duten koherentzia eta erlazioa zehaztuko da. Horrek helburu komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, aldaketa honen barruan jarduteko dauden hautabideak aztertzea, gainerako programen helburuekin eta jarduketa-ildoekin ezkutatzeko, desadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan.

6.2.- Ingurumena babesteari begira, nazioartean, batasunaren mailan, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.

Ebaluazio estrategikoa egiterakoan aintzat hartu beharko dira legerian ezarriak dauden babes helburuak, eta erreferentziako agiri honen 3. apartatuan jada aipatu ditugun estrategiak eta programak. Helburu horiei, dena den, IITaren erredakzio-taldearen iritziz bidezkoak eta interesgarriak direnak gehitu ahal izango zaizkie.

Helburu horiek aldaketa honetako jarduketa eta jarraibideetan benetan txertatu direla justifikatu egin beharko da.

6.3.- Modu nabarmenean ukituak gerta daitezkeen eremuen ingurumen ezaugarriak, eta aldaketa hau aurrera eramateko dauden ingurumen arazo garrantzitsuak. Ingurumenak izan lezakeen bilakaera Plana aplikatu ezean.

IITaren edukian, aldaketa garatuko den edota, zuzenean ala zeharka, aldaketaren eragina jasan lezakeen esparruaren ingurumen arloko deskripzio zehatua jasoko da; eta, eremu horren gaur egungo ingurumen egoeraren diagnostiko egokia egingo da. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifikoko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz, eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez. Azterketa horretan oinarrituta, ingurumen unitate homogeneoak definituko dira; unitate horien ingurumen kalitatea baloratu eta duten erabilpen gaitasuna ezarriko da.

Atal horretan, gainera, azterketaren helburu den esparru horretan gaur egungo egoerak erakusten dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertu egingo dira, arazo horiek aldaketan nola eragingo duten baloratzeko, edota arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeko.

Hasierako agirian ingurune fisikoari buruz jasotako informazioa funtsean egokia da iraunkortasun txostenaren atal honetan sartzeko; hala ere, informazio hori guztia osatu egin beharko da, erreferentziako agiri honen 4. apartatuan ezarri diren alderdi hauekin:

- *Landaretza*: argitu behar da 6210 batasunaren intereseko habitaten formazioek orkideak badituzten ala ez; eta ondorioz, lehentasunezkoak diren ala ez. Era berean, esparru honetan landaretza inbaditzailerik badagoen ala ez eta, ondorioz, aldaketaren eraginpeko eremuaren garapen prozesuan aintzat hartu beharreko kontrol eta tratamendua eskatuko duten ala ez zehaztu behar da.
- *Kutsadura akustikoa*: eremuko inpaktu akustikoa aztertu behar da, eta planari erantsi.
- *Kultura ondarea*: katalogoa osatu egin behar da *Vascoalemana* industri eraikina eta balio arkeologikoa izan dezakeen *Sasiola dorrea* sartuta.



- *Paisaia*: aldaketak ukituko duen arroaren paisaia aztertuko da (kalitatea, urrakortasuna eta beste lekuetatik ikusgarri geratzea, hautabide bakoitzaren inpaktuak eta horien balorazioa, ...).

Era berean, informazio hori guztia osatu eta sakondu egin beharko da, aldaketaren tramitazio prozesuan zehar udalean bertan edo udalaz kanpo sor litekeen informazio berri garrantzitsuaren arabera.

Bestetik, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen dekretuak, hau da, premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.1 artikuluan ezarritakoa betez, aldaketaren eraginpeko esparruak izan ditzakeen natur arriskuen mapaz aparte, aldaketa honetan jasotako aurreikuspenei begira, lurzoruek duten harrera gaitasuna aztertuko da. Horretarako aintzat hartuko dira, besteak beste:

- Uren administrazioak uren jabari publikoa babesteari buruz egindako txostena.
- Gipuzkoako Uren Kontsurtzioak egindako txostena. Horretan egiaztatuko da, oraingo sistemek eskari berriei erantzuteko behar besteko ahalmena badutela edota, nahikoak ez badira, Udalak gabezia horiek konpontzeko aurreikuspenak eginak dituela.
- Kostaldean administrazioak itsas eta lehorreko jabari publikoaren babesari eta mugaketari buruz egindako txostena.
- Errepideen arloan eta lehendik badauden gainontzeko azpiegituren (Euskotren-en linea, esaterako) arloan eskumena duten administrazioek planean jasotako aurreikuspenen eraginari buruz egindako txostena.

Bukatzeko, aldaketa hau ez garatzekotan, aztergai den esparruan eta planaren eraginpeko eremuan ingurumenak izango duen bilakaera aztertuko da.

Atal honek eskala egokian egindako gaikako kartografia izango du oinarri, hain zuzen ere planari azkenean txertatuko zaizkion alderdi guztiei buruzkoa (kartografia horrek, hasierako agirian aurkeztutakoa baino handiagoa izan beharko luke, jasotzen duen informazioa xehetasun handiagoa ikusi ahal izateko).

6.4.- Hautabideak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidearen justifikazioa

Azterketaren esparruan dauden ingurumen elementu eta arazo nabarmenak identifikaturik, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, aldaketa garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko bideragarriak diren hautabideak proposatu beharko dira. Hautabide horiek definitzerakoan aintzat hartu beharko dira URA agentziak eta Kosten Zerbitzuak beren eskumenak erabiliz emandako jarraibideak, hala nola eragin akustikoaren azterketatik eta paisaia-azterketatik ondorioztatuko direnak. Horrek guztiak hasierako agirian aurkeztutako hautabideen diseinua aldatu beharra ekar dezake.

IIT txostenean, proposatutako hautabideen ingurumen azterketa bat jaso beharko da. Azterketa horretan, txosten honetan eta aldaketan bertan ezarritako ingurumen helburuei eta iraunkortasun printzipioei dagokienez hautabide bakoitzak erakusten duen asebetetze maila ebaluatuko da; eta, era berean, aurreko apartatuan (6.3) deskribatu diren eta erarik nabarmenenean ukituak gertatuko diren ingurumen elementuen gainean hautabide bakoitzak eragin ditzakeen ingurumen efektuak aztertuko dira. Hautabide bakoitzak zuzenean edo zeharka sortuko dituen edo bultzatuko dituen eraginak aintzat hartu beharko dira, elkarren arteko efektu sinergikoak eta metatze ondorioak bezalaxe.



IIT txostenak, gainera, xehetasun osoz azalduko du ebaluaketa horretan erabilitako metodologia; era berean, hautabide horiek, garatu beharreko irizpide ugari azterketan aintzat hartu beharreko gainerako faktoreen arabera –tekniko-funtzionalak, sozialak eta ekonomikoak– ingurumenaren ikuspegitik nola baloratuko diren erakutsiko da. Eta, azkenean faktore horietako bakoitzari eman zaion garrantzia justifikatuko da. Azkenean erabakitako hautabidea ez bada ingurumen baloraziorik hoberena lortutakoa, hautabide hori aukeratu izanaren arrazoiak justifikatu egin beharko dira.

Txosten horri, proposatutako hautabide guztien kokalekua adierazten duen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio.

6.5.- Aldaketako xedapenek eta jarduketek ingurumenaren gainean izango dituzten ondorio aipagarriak identifikatzea eta baloratzea.

Arestian aipatutako prozesua bete ondoren, behin betiko erabakitzen diren jarduketek aldaketako jarduketei buruzko 6.3 apartatuan aztertutako inguruneke elementuetan sortuko dituzten ingurumen eraginak identifikatu eta baloratuko dira. Zeregin horretan, honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez:

- **Lurzoruaren kalitatea eta erabilerak:** lurzoruaren gaur egungo erabileran gertatuko diren aldaketak, eta kutsatuak egon litezkeen lurzoruen gaineko afekzioak, eta abar.
- **Uren jabari publikoa eta itsas-lehorrekooa:** lur gaineko urak kutsatzeko arriskua, ubideen edo lursailak drainatzeko sarearen alterazioak, Uren Jabari Publikoko zonetan edo itsas eta lehorrekoetan gerta litezkeen inpaktuak, eta abar.
- **Zarata eta bibrazioak:** zaraten eta bibrazioen iturburuek izan dezaketen eragina, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoaren 213/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, bizitegi erabilerako ezarritako kalitate akustikoari eta bibrazioei buruzko helburuen betetze-mailan. Aldaketa garatu ostean izan litekeen soinu mailari buruzko informazio-planoak ere erantsi beharko dira.
- **Ekosistemak:** zuzenean nahiz zeharka eragingo diren inpaktuak ekosistemen ezaugarrietan, beren funtzionamenduan –konektibitatea eta iragazkortasun ekologikoa–, eta ekosistema horiek ematen dituzten ingurumen zerbitzuen gainean. Zuzenean nahiz zeharka ukituak gerta litezkeen ekosistemak hartuko dira kontuan.
- **Biodibertsitatea:** berezko landaretzaren gainean izango dituen ondorioak, eta azterketaren esparruan edo inguruan dauden fauna-espeziaren gainean izango dituen afekzioak, arriskuan dauden espezieen euskal zerrendan sartutako espezieak bereziki aintzat hartuta.
- **Paisaia:** planaren ondoriozko jarduketek ikus-arroan izango duten eragina, eta paisaian gerta litezkeen aldaketak.
- **Kultura ondarea:** Ondare Arkitektonikoan eta Ondare Arkeologiko, Historiko-Artistiko eta Etnografikoan sartutako eremu eta elementuen gaineko afekzioak.
- **Natur arriskuak:** beren eraginean gorabeherak gertatzea, batez ere uholde arriskuek gora egiten dutenean, eta malda handiko sailetan lurketak egitearekin lotutakoak direnean.
- **Azpiegiturak:** esparru honetan dauden azpiegituren gaineko eraginak, Euskotren-en trenbidean, argindar hariterian, zerbitzuen hodierian, eta abar. Era berean, oraingo komunikazio sarean eta aparkamenduan gertatuko diren aldaketak, horiek zerbitzu gaitasunari eragingo dion afekzioa, mugikortasun eta garraio dentsitateen gehikuntza, eta abar.

Ondorioak sailkatzerakoan, honakoak hartuko dira kontuan: gertatzeko probabilitatea, izaera (positiboa edo negatiboa), gertatu litezkeeneko momentua (plana garatzearekin batera edo beranduago), iraupena, itzulgarritasuna, berreskuragarritasuna, garrantzia eta hedadura



espaziala, zuzeneko edo zeharkako ondorioak. Zorroztasun bereziarekin aztertuko dira plan honetako jardueren arteko ondorio metagarri eta sinergikoak, hala nola beste plan batzuetan proposatu diren baina esparru honetan eragin dezaketen beste jarduera batzuekiko ondorioak. Era berean, ondorioen iragarpenean izandako ziurgabetasun maila adieraziko da. Bestetik, ondorio horiek, ahal dela, aurreikuspenen arabera gerta litezkeen planaren fase desberdinekin lotuko dira. Inpaktuak honela sailkatuko dira: bateragarriak, moderatuak, larriak eta kritikoak, betiere irailaren 30eko 1131/1998 Errege Dekretuan jasotako definizioaren arabera.

Antzemandako inpaktuen garrantzi posiblea zehazteko, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, III. eranskinean ezarritakoari jarraituko zaio.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokituz gero, aldaketaren barruan zeintzuk diren indarrean dagoen lurralde, hirigintza eta ingurumen plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumenean ondorio kritikoak eta onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, arrazoitu egin beharko dira, egokiagoa dela pentsatuta prozesuaren gerorako faseetan aztertzeke utzi diren alderdiak.

6.6.- Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean eragin lezakeen ondorio nabarmen oro prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian konpentsatzeko xedez aurreikusi diren ingurumen txertaketako neurriak.

IIT txostenean zehaztu egin beharko dira, aldaketa gauzatzearen ondorioz ingurumenean gerta litekeen ondorio nabarmen bakoitza prebenitu, murriztu eta, ahal den neurrian konpentsatzeko aurreikusi diren neurriak. Aldaketan proposatu den eta ingurumenean ondorio nabarmenak eragin ditzakeen jarduketa mota bakoitzeko, ondorio horiek ekiditeko edo minimizatzeke aurreikusi diren neurriak azaldu beharko dira. Neurri horiek aldaketaren hirigintza dokumentazioan jaso beharko dira, eta beroriek egikaritzeko denbora-plangintza ezarri. Gainera, ahal denean behintzat aurrekontua egingo da. Halaber, lerrun txikiagoko planetan eta aldaketa garatzeko proiektuetan aintzat hartu beharreko neurriak zehaztu egingo dira.

Kontsultei emandako erantzunetan adierazitako proposamenak ere aintzat hartu beharko direnez, hauek dira, besteak beste, kontuan hartu beharreko neurriak:

- **Kutsatuak egon daitezkeen lurzorua:** lurzoruaren kalitateari buruzko ikerlanak egitea, baldin eta aldaketa honek kutsatuak egon litezkeen lurzoruen zerrendan sartutako lursailetan eragingo badu, eta abar.
- **Hondakinak:** oro har sortutako hondakinak –eraikuntzako eta eraiketako hondakinak barne direla, besteak beste– behar bezala kudeatzea bideratutako neurriak.
- **Zarata:** 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate helburuak betetzea eta soinu-eragina minimizatzea ahalbidetuko duten neurriak; esate baterako, trafikoa berrantolatzea eta banantzea, zarataren aurkako pantailak ezartzea, eta abar. Horrekin zerikusia duen kartografia aurkeztuko da. Kartografia horretan, proposatutako neurri zuzentzaileak lekutu, eta neurria ezartzearekin lortu nahi den soinu-maila adieraziko da.
- **Hidrologia eta hidrogeologia:** bistan utziko den errekaen ibilguari bere natur baldintzak itzultzea; burutu beharreko obren eremu lagungarriak isolatzea, eremu iragazkaitzetan; ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeke LAPean eta Plan Hidrologikoan ezarritako distantziak errespetatzea, eta abar.
- **Ekosistemak eta biodibertsitatea:** landaretza autoktonoan eragin litekeen inpaktua saihestea edota minimizatzea, baita gorago aipatutako neurri konpentsagarriak ezarri behar badira ere. Kanalizazio gogorrak ekiditea edo baztertzea; eta horien orde, ezpondak eta ibai bazterrak egonkortzeke ingeniari-tza biologikoko teknikak erabiltzea, eta abar.



- **Paisaia:** ldo honetan egindako azterketaren ondorioz, aldaketak proposamen zehatzak planteatuko ditu malda handietan jarduketak minimizatu eta paisaian txertatzeari dagokionez, obren eraginpeko eremuak lehengoratzeari dagokionez, eta abar. Alderdi horiek zehaztu egin beharko dira garapen plangintzari erantsiko zaion Ingurumena eta Paisaia Lehengoratzeko Planean, eta aldaketaren ondorioz egingo diren urbanizazio edota egikaritze proiektuetan.
- **Kultura ondarea:** esparru honetako kultura ondarea zaintzeko eta babesteko jarduketak.
- **Arriskuak:** esparruan erabilerak modu egokian banatzea, erabilera urrakorrei uholde arriskuak ekiditeko, Plan Hidrologikoko jarraibideak betez, eta abar.

6.7.– Planaren ondorioak ikuskatzeko programa.

Planaren eraginari eta ingurumen bilakaerari buruz etengabeko informazioa izatearren, ingurumen baldintzen jarraipena egiteko sistema bat garatu beharko da; eta sistema horren bitartez, aldika-aldika informazioa jaso eta emango da, honako alderdi hauei buruz:

- Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila.
- Plana martxan jartzetik etorritako ingurumen ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Neurri prebentibo eta zuzentzaileen eta, halakorik denean, neurri konpentsagarrien funtzionamendua.
- Aurreikusi ez diren baina inguruneke elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa.
- Aurreikusi gabeko ingurumen ondorio kaltegarrien aurka ezarritako neurri gehigarrien aplikazioa eta arrakasta.

Horretarako, jarraitu beharreko sistemak eta ingurumen alderdiak edo aldaerak identifikatu, eta ikuskatze programa diseinatuko da. Programa horretan zehaztuko dira:

- Burutu beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, bakoitzaren metodologia eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita. Adierazle horiek, agiri honetan jasotakoak izan daitezke, edota egokitzat jotzen diren beste hainbat.
- Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusi den aurrekontua.

6.8.- Laburpen ez-teknikoa

Ingurumenaren iraunkortasun txostenean emandako informazioaren laburpen ez-teknikoa idatzi beharko da, eta laburpen horretan, informazio zehatza emango da, jendeak erraz ulertzeko moduan.

Laburpen horretan, honakoak jasoko dira gutxienez: aztertu diren hautabideak; ingurumenean eragingo dituzten ondorioak eta ingurumen helburuak lortzen nola lagunduko duten; azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak; diseinatu diren neurri zuzentzaileak; eta ukitutako administrazioek eta pertsona interesatuek planteatutako arazoak kontuan nola hartu diren. Era berean, alderdi aipagarrienen dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.



6.9.- Hautabideen eta neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena

Hautabideen azterketari analisi ekonomiko bat erantsiko zaio. Honetan kontuan hartuko dira kostu-irabazia analisia eta azterketa ekonomiko-finantzarioa, eta, ahal den neurrian, ingurumen nahiz gizarte alorreko kanpo kostuak ere sartu egingo dira.

Atal horretan, halaber, aldaketa aplikatzeak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespen edota aurrekontu banakatua jasoko da, aldaketaren ingurumen kostuak barneratu egingo direla bermatzearen.

7.- INGURUMENAREN IRAUNKORTASUN TXOSTENEAN AINTZAT HARTZEKO PROPOSATU DIREN ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOAK.

Ingurumenaren iraunkortasun txostenean aukeratzen diren adierazleak, aldaera batzuen konbinaketa izango dira; ahalbidetu behar dute, alde batetik, aldaketan ezarritako ingurumen helburuak betetzen direla egiaztatzea, eta bestetik, plana garatzen den bitartean ingurumen ondorioei buruz egindako aurreikuspenak betetzen direla. Horrela, neurri zuzentzaile gehigarriak ezarri ahal izango dira, baldin eta ingurumen baldintzak betetzen ez badira, edota helburu horiekiko gorabeherak gertatzen badira.

Ingurumen adierazleak:

- Ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuak egon behar dute, aldaketa formulatzerakoan eta aplikatzerakoan esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzea ahalbidetuko dien kudeaketa-tresna moduan funtziona dezaten benetan.
- Neurgarriak eta denbora-tarteetan aztertze modukoak izan behar dute. Denboraren joanean aldatzeko modukoak izan behar dute, joera kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko xedez aztertze modukoak.
- Adierazle kopuru txikia jarri behar da, inplikaturako eragile guztiek erraz ulertzeko modukoak izan daitezen. Hori horrela, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dute.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio-iturri askotara jo beharrik gabe.

Segidan, ingurumen adierazleen multzo bat proposatuko dugu, aldaketan ingurumen alderdiak zein mailatan txertatzen diren baloratzeko orientabide izan daitezen. Adierazle hauek ez dira baztertzailatzat hartu behar, aldaketaren iraunkortasun txostenaren egileek egindako beste batzuen osagarri moduan baizik.

- **Hirigintza:**

- Espazio libreetarako kalifikaturako lurzoru azalera, aldaketa garatu aurretik eta ondoren, udalerriko gaur egungo biztanleriari dagokionez.
- Esparruaren barrura nornahi sartzeko erraztasuna, aldaketa gauzatu aurretik eta ondoren.

- **Ura:**

- Planeko jarduketan eraginpeko ibai ibilguten egoera ekologikoaren (edo gaitasun ekologikoaren) bilakaera, plangintza berria aplikatu aurretik eta ondoren.



- **Zarata:**
 - Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ezarritako kalitate helburuez gaindiko zarata maila jasaten duen populazio portzentajea, aldaketa gauzatu aurretik eta ondoren.
- **Lurzorua:**
 - Kutsatuak egon daitezkeen lurzoru definituak eta berreskuratuak dituzten kokalekuen azalera, aldaketari ekin aurretik eta ondoren.
- **Biodibertsitatea:**
 - Batasunaren intereseko habitatek hartzen duten azalera, aldaketari ekin aurretik eta ondoren.
- **Arriskuak:**
 - Errepika-aldi ezberdinetan (10, 100 eta 500 urte) urak hartzeko arriskua duen azalera, aldaketari ekin aurretik eta ondoren.

8.- INFORMAZIOA EMATEKO ETA KONTSULTA EGITEKO ERAK

Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, informazioa emateko eta kontsulta egiteko erei buruz 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, Debako Udalak, aldaketa zertzeko prozeduran aurreikusitako izapideen barruan, honako jarduerak burutuko ditu:

a) Ukitutako herri administrazioei eta pertsona interesdunei kontsulta egingo zaie, planaren edo programaren atariko bertsioari eta ingurumenaren iraunkortasun txostenari buruz.

b) Planaren atariko bertsioa eta ingurumenaren iraunkortasun txostena jendaurrean jarriko dira ikusgai, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuta. Eta gutxienez 45 eguneko epea emango da interesdunek aztertu eta bidezko oharrak egin ditzaten.

Arestian esandako horri dagokionez, ukitutako herri administrazioetat eta herritar interesatutzat joko dira, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honek Erreferentziako Agiri hau egiteko xedez kontsultatu dituen administrazio eta erakunde publikoak –dokumentu honetako 2. apartatua– eta Udalak plana izapidetzeko prozesuan identifika ditzakeen antolakunde eta interesdun gehigarriak (auzo elkarteak, herritarren foroak eta abar).

9.- INGURUMEN MEMORIA ESKATZEA ETA JENDAURREKO INFORMAZIO FASEAREN ONDOREN PLANEAN EGIN DAITEZKEEN ALDAKETAK

Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, Debako Udalak, plana edo programa behin betiko onartu aurretik, Ingurumen Memoria egin dezan eskatuko dio Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honi. Eta hirigintzako dokumentu hori egiteko eskaera horri, honakoak erantsiko dizkio: onartu beharreko planaren edo programaren ingurumenaren iraunkortasun txostena, erreferentziako agiri honetako 6.



apartatuan zehaztutako edukiarekin; kasuan kasuko espedientearen kopia, bidezko araudi sektorialaren arabera derrigorrezkoak diren txostenak barne direla; eta kontsultak egiteko eta jendaurreko informazioa emateko izapideetan zehar aurkeztutako alegazioak.

Bestetik, baldin eta plana edo programa izapidetzen den bitartean, eta kontsultak egiteko eta jendaurreko informazioa emateko izapideak bete ondoren, ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen eta ebaluatu ez diren aldaketak egitea erabakitzen bada, eta edozein kasutan ere, 211/2012 Dekretuak 4. artikuluan aipatutako kasuren bat gertatzen bada, Udalak berorren berri eman beharko dio Zuzendaritza honi, eta planean edo programan aldatu diren alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa gerta litekeen dokumentazioa bidaliko dio.